Aldiri, 2018, IV, **36**, 6-11, ISSN 1889-7185

ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Lurraldea elikagai-sortzaile

Elikadura-sistemen birtokiratzea

Laburpena: Lurraldeek duten elikagaien sorrerarako bokazioa berreskuratzeko, elikagaiak ekoizteko beharrezko lurren detekzioaz eta babesaz gain, elikadura-sistema osoa da birpentsatu eta berrantolatu behar dena. Tokiko Elikadura Sistemen indartzea eta elikadura-burujabetza izango dira gure etorkizunerako elikagai-eskakizunak asetzeko aliatu ezinbestekoak.

Hitz-gakoak: Lurraldea, Tokiko Elikadura Sistemak, Elikadura-Segurtasuna, Elikadura-Burujabetza

Abstract: In addition to the detection and protection of land needed for food production, it is the entire food system that needs to be thought about and reorganized in order to recover the vocation of the territories to grow food. The strengthening of local food systems and food sovereignty will be essential allies in meeting the food requirements of our future.

Key words: Territorial planning, Local Food Systems, Food Security, Food Sovereignty



Irantzu Duro[1], Leire Milikua[2] eta Sergio Gallego[3]

[1] Ingeniari agronomoa, [2] arkitektoa eta [3] Ingurumen Zientzietan lizentziatua. Oremai Lurralde Laborategi Integrala osatzen dute.

Jasotze data: 2018-11-30
Onartze data: 2018-12-15

Sarrera

«Lurraldea» eta «elikagaien ekoizpena» aldagaiak batzen ditugunean, «lehen sektorea» da ekuazio horren emaitza halabeharrezkoa gizartean hedatua dagoen iruditerian. Antzera, «landa-eremua» aipatzean, pertsona «baserritarra» bururatu ohi zaigu. Batetik, iruditeri kolektiboak denboran izoztu du garai bateko tokiko elikadura-sistemaren argazkia, non inguruko lurraldea zen plateretako elikagaien hornitzaile nagusia orduko baserritarren lanari esker; eta, bestetik, gaur egun ez gara gai elikagaien ekoizpena gure eguneroko bizitzaren puzzlean pieza bat gehiago dela ikusteko. Errealitateak beste irudi bat bueltatzen du, ordea.

Ekoizpena gaur

Argazkia ekoizpen-datuetara mugatuz gero, EAEn nekazaritzan okupatutako 16 urte eta gehiagoko biztanleria 2018ko hirugarren hiruhilekoan % 1,2 izan da (EUSTAT). Nafarroan, % 3,8 da kopuru hori (NASTAT). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza balio erantsi gordinaren 0,88 da data berberean, 2018ko hirugarren hiruhilekoan (EUSTAT). Hortaz, pasadizozkoa da ia gure lurraldeak elikagaien ekoizpenean duen oihartzuna, potentziala bestelakoa izan arren.

Aldiz, elikagaien industriari erreparatuz gero, gaur egun EAEko barne-produktu gordinaren (BPG) % 10,6 da, eta 96.500 enplegu zuzen sortzen ditu[1]. Nafarroan Elikaduraren sektorea BPGaren % 6,6 da, eta 25.000 lanpostu sortzen ditu[2].

Ekoizpena oinarrizkoa da, noski, baina elikadura-sistema osatzen duten gainerako aldagaiak kontuan hartzen ez baldin badira, ekoizteak ez du esan nahiko elikagai (osasuntsu[3]?) horiek modu eskuragarrian platerean izateko aukera egongo denik. Tokian, beste herrialde batean saltzeko ekoitz daiteke; edota, agian, ez dago merkaturatze-bideetara sarbiderik; izan daiteke banaketa-sistema, azpiegiturak, logistika-beharrak eta abar izatea ekoizpen hori kontsumitzailetik banatzen duena; edota ez baldin badago kontsumitzailerik prest bertako produktuak erosteko...

Ekoizpena gakoa izan arren lurraldeen elikatzean, elikadura-sistema osoa da aintzat hartu eta berrantolatu behar dena.

Elikadura-sistemak, ikuspegi integralaren beharra

Elikadura-sistema «pertsonak beren elikagaiak lortu eta kontsumitzeko duten modua da» (L. Malassis, 1996).

Tokiko Elikadura Sistemak tokian bertan ekoitzi, eraldatu, banatu eta kontsumitutako elikagaiak dira. Globalizazioaren, elikagaien multinazionalen eta klima-aldaketaren aurkako erantzun bezala, tokiko elikaduraren aldeko mugimendua sortzen dabil elikadura-sistema alternatibo lez, ikuspegi soziala eta ingurumenekoa kontuan hartuta. Zenbait kontsumitzailek tokian ekoitzitako elikagaiekiko lehenespenak (*localvores* ingelesez) tokiko kultura eta identitatea sustatzen ditu, elikadura-ekonomia autosufizienteak, landa- eta hiri-eremuen arteko loturak eta, orokorrean, iraunkortasuna (FAO, 2009).

1 «Euskadi quiere que el sector primario tenga más presencia en el PIB», *El País*, 2018-03-19.

2 «El sector agroalimentario, uno de los principales actores económicos en Navarra», *Noticias de Navarra*, 2018-04-27.

3 *Viaje al centro de la alimentación que nos envenena.* VSF, Justicia Alimentaria Global 2015.



1. irudia ~ Elikadura-sisteman parte hartzen duten aldagaien grafikoa.
Egileak ~ *Irantzu Duro, Leire Milikua eta Sergio Gallego.*

Esan beharra dago egungo Elikadura Sistema Global eta industrializatuak bere ezaugarrien artean dituela urruntze hirukoitza: fisikoa, soziala eta identitarioa (Feagan, 2007; McMichel, 2009; Whilhelmina eta al., 2010. Aipamena: Morán, 2015). Eredu horiek lurralde-antolaketa eredu zehatz batzuek lagunduta garatu dira.

Urruntze hori ez da debaldekoa: garraiorako eta elikagaien kontserbaziorako beharrezko energia-gastu handiak dakartza, eta eratorritako kutsadura (negutegi efektuko gasak…), beste hainbat «albo-» kalterekin batera[4].

Nerea Moránen tesiak jasotzen duenez, Tokiko Elikadura Sistemaren definiziorik osatuenetakoa da honakoa: toki jakinetan errotutakoa, helburu bezala dauka ekoizle eta kontsumitzaileentzat ekonomikoki bideragarria izatea maneiu ekologiko eta osasungarriak erabiliz, baita komunitateko kide guztientzat demokrazia eta ekitate soziala hobetzea ere (Feenstra, 1997).

Hortaz, goian ageri den irudiko elementu denak dira elikadura-sistema osatzen dutenak, eta guztiak kontrolatu behar dira elikadura-sistema mota hautatzeko orduan (1. irudia). Batzuetan errazagoa izango da eragitea beste batzuetan baino (eskala eta eskumen kontuengatik), baina jakina da denak elkarri eragiten daudela, ez dela eskema lineala (Steel, 2008).

Afera honetan, beharrezkoa da lotura handia izan dezaketen baina oinarrian arras ezberdinak diren bi kontzeptu aurkeztea: elikadura-segurtasuna eta elikadura-burujabetza.

Elikadura-segurtasuna

Elikagaien segurtasunari dagokionez, berau egongo da baldin eta pertsona guztiek, fisikoki zein ekonomikoki, une oro eskuragarri badituzte elikagai kaltegabe eta nutritiboak, euren elikagai-beharrizanak eta lehentasunak asetzeko eta bizitza aktiboa eta osasuntsua izateko (Elikaduraren Munduko Bilkura, 1996).

Egun Euskal Herrian dagoen elikadura-sistemak eta lurralde-antolaketaren ereduak elikagaiak une oro eskuragarri izatea ahalbidetzen du, bai, beste herrialde batzuei erosteko ahalmena dugun artean, bai gure erosketa-saskia ordaintzeko ahalmena dugun artean. Elikagai kilometrikoek goitik behera zeharkatzen dute euskal elikadura. Garai batean tokiko produktuak zirenak, eta egun izan zitezkeenak ere, egun indarrean dagoen Elikadura Sistema Globalaren jokoan sartzen dira. Horren adibide paradigmatikoa da lekaleen afera (Duro eta García, 2017). Iruditeria kolektiboan tokiko produktu izaten jarraitzen duten elikagaiak dira, eta elikadura-piramidearen oinarria osatzen dute. *Eskola Jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura* dokumentuak jasotzen du EAEn bertan ekoizten dela kontsumitzen diren lekaleen % 90, baina inportazio- eta esportazio-zirkulazio handia ematen dela. Hala, 2016an 7.000 t lekale inguru inportatu ziren eta 9.000 t baino gehiago esportatu. Hari horri tiraka, dokumentu berberak zera dio, tradizionalki tokian edo eskualdean ekoitzi diren, baina gero eta urrunagotik datozen elikagaiak direla elikagai-

4 Giampietro eta Pimentelek, 1994ko «Food, Land, Population and the U.S. Economy» dokumentuan, AEBko elikadura-sistemak sortzen duen elikagai-energia baino 10 aldiz energia gehiago kontsumitzen zuela adierazi zuten, eta berriztagarriak ez diren erregai fosilengatik baino ezin zitekeela egoera hori posible izan.

Aldiri, 2018, IV, **36**, 6-11, ISSN 1889-7185

fluxuaren nazioarteko autobideen erabiltzaile nagusiak (frutak, barazkiak, lekaleak, patatak, arraina, esnea eta abar), «elikagai exotikoak» (bananak, ananak, mangoak, kiwiak eta abar) baino are gehiago. Adibideekin jarraitzearren, EAEn, esportatzen diren pataten bikoitza inportatzen da, baita lekaleen % 70 edota fruta eta barazkien % 52 ere. Halaber, esportatzen den arrainaren % 200 inportatzen da. Zifrak nazioartean inportatzen diren elikagaiei dagozkie, alegia, Estatuaz haratago, eta EAEko aduana-postuetan deklaratzen direnei. EAEk egunean 70.000 kg esne inportatzen eta 30.000 kg esne esportatzen ditu; 2.500 kg oilasko-haragi inportatu eta 1.000 kg esportatu; 44 tona arrain izoztu esportatu eta 98 tona inportatu. Egunero ia 120.000 kg barazki eta eratorri, 25.000 kg haragi eta 55.000 kg fruta inportatzen dira. Azken 10 urteotan, elikagaien inportazioak % 66 egin du gora eta errepidez garraiatzen diren salgaien % 25 elikagaiak dira.

Egoera zaurgarria da oso euskal gizartearentzat, gaur egun elikagaien hornitzaileak diren herrialde ezberdinetako mugak itxiko balira, urrun aurkituko baikinateke elikatzeko beharrezko elikagaiak lortzetik.

Eskuragarri dauden elikagai horietatik asko ez dira ez kaltegabeak, ez nutritiboak, eta kalitate- eta osasun-protokoloak betetzen dituztenean ere, euren ekoizpen-edo salmenta-ereduagatik kaltegarriak bihur daitezke. Mundu-mailako sistema global horretan milaka kilometrotara ekoitziak izan daitezke, horrek dakarren garraio- eta kontserbazio-kateen eraginarekin (hondakinak, kutsadura, energia-kontsumoa, lurraren artifizializaioa, eta abar), eta ez dago ekoizte-lanetan egon diren pertsonen lan-baldintzen inguruko jakintzarik, distantzia (eta interes falta) dela medio. Argi dago elikadura-segurtasunaren kontzeptua ahula dela oso. Atentzioa ematen du, zeren eta gerraoste gogorretan sortutako kontzeptua izanda, herrialdeen hondamen-egoeran berreskuratu izan baita norbere biztanleria elikatzeko gaitasuna izatearen garrantzia (Hospes eta Brons, 2016).

Suitzako kasua

Bigarren Mundu Gerran zehar, suitzarrek gosetearen aurkako estatu-plan bat garatu zuten, herrialdearen isolamendu-egoera zela-eta; gobernutik aldarrikatu zen landu zitekeen azalerarik ezin zitekeela landu gabe utzi, elikagaiak sortzeko. «Laboratze-bataila» deitu zen kanpaina. Egun, herrialdearen herena nekazaritza- eta larre-lurrak dira. Sekula ez da iritsi bere elikagai-beharren % 100 ekoiztera, baina Agroscopek[5] aztertu du zer gertatuko litzatekeen herrialdeak gainerako herrialdeekin gehiago salerosi ezingo balu . Larrialdi-egoera baten aurrean, Suitza autosufizientea izango litzatekeela ondorioztatu du: eskuragarri duten landa-lurrak pertsonako beharrezkoa den elikagaiak hornitu ahalko lituzke, baina horretarako nekazaritza-ekoizpena berrantolatu beharko litzateke, eta suitzarrek beren dieta aldatu beharko lukete.

Elikadura-burujabetza

Hala, egungo testuinguruan Euskal Herria elikadura-segurtasun benetako bat izatetik urrun dagoenez, kanpotik ekarritako horren gainean erabakitzeko aukeraren alde egin beharko litzateke behintzat, eta autonomia sendotzea lagunduko duten ekintzak abiatu.

Elikadura-segurtasuna kontzeptuaz gaindi[6], nekazarien mugimenduak elikadura-burujabetzaren proposamena egin zuen. La Via Campesinak[7] (LVC) 1996an proposaturiko kontzeptu bat da, gauzatutako topaketa ezberdinetan fintzen, osatzen eta aberasten joan dena. Nyeleniko Adierazpeneko definizioa da (2007) egun osatuena:

Elikadura-burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak izateko duten eskubidea da; edonorentzat eskuragarriak, eredu iraunkorrean eta ekologikoki ekoitziak diren elikagaiak, herriak berak elikapen zein ekoizpen-eredua erabakitzeko eskubidea bermatzen duena. Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten pertsonak elikadura-sistemen eta politiken erdigunean kokatzen ditu, merkatuen eta enpresen eskakizunen gainetik, alegia. Etorkizuneko belaunaldien interesak defenditzen ditu, eta haiek hartzen ditu kontuan. Merkatu libre eta korporatiboa eta egungo elikadura-erregimenaren aurrean eusteko eta haiek hankaz gora jartzeko estrategia eskaintzen digu, eta elikadura-sistemak, nekazaritza, artzaintza eta arrantza-sistemak bideratzeko ere bai, tokiko ekoizleek eurek kudea ditzaten. Elikadura-burujabetzak tokiko ekonomiak eta tokiko eta nazioko merkatuak lehenesten ditu, eta boterea ematen die nekazaritzari eta familia-nekazaritzari, artisau erako arrantzari eta artzaintza tradizionalari; eta elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren jasangarritasunaren ardatz bihurtzen du. Elikadura-burujabetzak merkataritza gardena, herri guztiei diru-sarrera duinak bermatuko dizkien merkataritza eta kontsumitzaileek euren elikadura eta nutrizioa kontrolatzeko duten eskubidea bultzatzen ditu. Gure lurra, gure lurraldeak, gure ura, gure haziak, gure abereak eta biodibertsitatea erabiltzeko eta kudeatzeko eskubideak elikagaiak ekoizten ditugunon eskura egongo direla bermatzen du. Elikadura-burujabetzak harreman sozial berriak eragiten ditu, zapalkuntzarik eta desberdintasunik gabeko harremanak: emakumeen eta gizonen artean, herrien artean, arraza-taldeen artean, gizarte-klaseen artean eta belaunaldien artean.

Hurrengo orrialdeko taulak laburbiltzen du bi kontzeptuen arteko aldea.

Argi dagoena da, edozein kasutan, elikadura-sistemak birtokiratzeak herriek berek elikatzearen gainean duten burujabetza ekarriko lukeela, baita elikagaien hornidura-ren inguruko egonkortasuna ere.

Eskola Jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura dokumentuan (Duro eta García, 2017), honela jasotzen da:

«(...)Egia esan, Elikadura Subiranotasunaren proposamenak berarekin dakarren funtsezko eskakizuna oso sinplea da: elikadura demokratizatzea. Zer jaten dugun eta nork ekoizten

5 Suitzako nekazaritza-ikerketen bikaintasun zentroa.

6 Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) 2015eko *Elikagaien Segurtasun-gabeziaren Egoera Munduan* (SOFI) txostena aipatzea komenigarria da, gure autohornikuntzarako gaitasun falta baita hein handi batean besteen gosearen eta mundu-mailako ingurumen-eraginen arduradunetako bat egungo politiken diseinu zorrotzaren pean (Milikua, 2015: 172).

7 LVC nekazarien, ekoizle txiki eta ertainen, landa-eremuko emakumeen, migratutako nekazari-langileen, indigenen komunitateen, gazteen eta lurrik gabeko langileen elkarteak koordinatzen dituen nazioarteko mugimendua da. 81 herrialdetako 182 antolakundek osatzen dute, eta 200 milioi nekazari baino gehiago jasotzen ditu bere baitan.

Elikagaien segurtasuna	Elikadura-burujabetza
Bereziki izaera teknikoa duen arazoa	Izaera guztiz politikoa duen arazoa
Politika publiko egokiak behar ditu	Politika nazional eta nazioarteko politika egokien bidez, egiturazko aldaketak behar ditu
Ez du kolokan jartzen garapen neoliberala	Eredu neoliberala jotzen du pobrezia areagotzearen arrazoi
FAOtik eta nazioarteko erakundeetatik dator	Gizarte zibiletik eta mugimendu sozialetatik dator
Estatua da subsidiario eta arautzaile (nahiz eta berriki eskubideen bermatzailetzat ere hartzen den)	Estatua eskubideen bermatzaile eta hornitzailea da
Merkatuak irekitzea bultzatzen du	Zalantzan jartzen du merkatuak irekitzea, baldin eta horren ekoizleak eta barneko merkatua babesgabe uztea ekartzen badu

Taula ~ Elikagaien segurtasunaren eta elikadura-burujabetzaren arteko ezberdintasunak.
Iturria ~ Carrasco eta Tejadaren egokitzapena (2008).
Egileak ~ *Brent, Z. eta Urretabizkaia, L. (2018).*

duen ezagutzea eta aukeratzea, elikagaiek zer inpaktu duten jakitea, nola eta non ekoizten diren jakitea, inplikazio sozial, ekonomiko edo ingurumenezkoak ezagutzea. Elikadura-sistema kapitalista urruna eta berariaz iluna da, gizarterako. Bizitzako beste alderdi batzuetan bezalaxe, bizitzeko behar ditugun gaiei (elikagaiak, kasu honetan) buruzko erabakiak gugandik oso urrun hartzen dira, eta ulertzeko, aukeratzeko eta erabaki horiek aldatzeko gero eta ahalmen txikiagoa dugu, planto egin eta eskematik irten ezean. Elikadura birkokatzeak elikadura berreskuratzea ere badakar berarekin (batez ere) (…) Lehen inongoak ez diren elikagaiak (nowhere food), elikadura-sistema globalen bidez lortzen direnak, aipatzen genituen, baita somewhere food elikagaiak ere, tokiko elikadura-sistema alternatiboen bidez lortzen direnak. Elikadura-sistema globalaren aurrean, orotariko jardunbideak dituzten elikadura-sare alternatiboak agertzen dira. (...)sare sortu berri horien ezaugarri komuna da nekazaritza- eta elikadura-sistema konbentzionaletik (globalizatua) sistema (bir) lokalizatu baterako trantsizioa egiten dutela. Birlokalizazio horrekin, ekoizpen eta kontsumoaren arteko birkonexioa, balioen birdefinizioa eta balio erantsiaren birbanaketa lortuko lirateke, oinarrizko helburu gisa. Tokiko elikadura-sistemei esker, posible da elikadura-katean boterea hobeto banatzea, modu bidezko eta orekatuagoan (ez dute hori bermatzen, baina konbentzionalek baino baldintza hobeak sortzen dituzte, hori lortzeko). Azken batez, elikadura-sistema egiazki demokratizatzea ahalbidetzen dute, erabakiak hartzen diren guneak (zer laboratzen den, nork, zer preziotan merkaturatzen den eta abar) askoz hein handiagoan oinarritzen direlako ekoizpen- eta kontsumo-faseetan (…)».

Europako Batzordeak honakoak jaso zituen tokiko elikagaien etiketatzearen inguruko propamena aztertzen zuen txostenean[8]:

«Tokiko elikadura-sistemek rol garrantzitsuagoa izan behar dute, Europar Batasuneko herritarren itxaropenei erantzungo bazaie. Halaber, bereziki garrantzitsua da Europar Batasuneko nekazarientzako eta nekazaritzaren aniztasunerako. Salmenta zuzenen eta kontsumitzaileekiko harreman estuagoaren bidez, Europar Batasuneko nekazariek balioa erants diezaiekete beren produktuei, salmentak areagotu ditzakete eta hobeto uler ditzakete Europar Batasuneko herritarren itxaropenak, elikagaien ekoizpen-metodoei eta elikagaiei beraiei dagokienez. Hori dela eta, nekazariak tokiko elikadura-sistemak garatzera eta beren produktuak ikusgaiago jartzeko moduak eztabaidatzera animatu nahi ditugu».

Lurraldea eta Tokiko Elikadura Sistemak

Horretarako, begirada lurraldera itzuli behar da, Tokikoa den horretara. Eta bertako metabolismoa aztertu, hau da, gure gizarteek lehengaiak zer neurritan «irensten» dituzten, ondasun eta zerbitzuak sortzeko «metabolizatuak» direnak, eta zer neurritan «iraizten» dituzten atzean utzitako material eta kutsadura (Arto, 2009: 43). Ezin da ahaztu mundu osoan zehar barreiatuta daudela lparralde globalaren baratzeak, baina baita hondakindegiak ere.

Bide horretan, zera ikusi behar da:

- Non eragin daiteke?
- Zertan oinarrituta?
- Zer tresnarekin?

Artikulu honetan, ondorengo proposamena luzatzen da, aldaketaren bidean.

8 https://ec.europa.eu/agriculture/newsroom/150_en [kontsulta: 2018-20-10].

Aldiri, 2018, IV, **36**, 6-11, ISSN 1889-7185

1. Non eragin daiteke? Aplikazio- eta eragin-eremuak

Plangintzan: Lurralde-antolamendurako eskala ezberdinetako planak (LAA, LZP, LAP…), Garapenerako planak, Plan estrategikoak, Ekintza planak… Elikagaiak sortzeko beharrezko azalerak aurreikusi, lur emankorrak beste erabileren aurrean babestu, tokiko garapenerako plan, ekintza eta estrategietan elikadura-sistemaren birtokiratzearen bidean pausoak eman.

Legedia eta araudia: Legeek eta arauek politika zehatzei erantzuten diete. Egungo legedi eta araudiek egungo elikadura-sistemaren eredua babesten eta laguntzen dute; hortaz, beharrezkoa da Tokiko Elikadura Sistema sendoak ahalbidetzeko lege eta arauak moldatzea, edota bestela berriak idaztea. Adibide argiak dira elikagaien eraldaketarako legeen inguruan Europatik datozen artezbideak Espainiako Estatuak edota Frantziako Estatuak zein ezberdin interpretatzen eta aplikatzen dituzten, eta zer eragin zuzen duen horrek eskala txikiko ekoizle eta eraldatzaileengan. Banaketa-kateak, merkaturatzeak, hondakinen tratamendua… elikadura-sistemako puntu bakoitzean eragiten duten lege eta araudi mugatzaileak aurki daitezke eta moldatu, tokiko elikadura-sistema faboratu nahi bada.

Ekimenak: banakakoak, kolektiboak, pribatuak, publikoak, sozialak… Lur-bankuak sor daitezke udal, aldundi… mailan. Udalean, elkarteetan… tokiko ekoizleen produktuekin hornitutako ekimenak antola daitezke.

Ohiturak eta azturak: kontsumo-aukerek eragin handia dute elikadura-sistemei eusteko (edo deusezteko) orduan. Egungo ohitura eta inertziei buelta emateko informazioa, formazioa, dibulgazioa, sentsibilizazioa… oso garrantzitsuak dira.

2. Zertan oinarrituta? Beharrezko tresnak imajinatzeko funtsezko printzipioak

Lurralde organikoa behar da, bizia, beharren arabera eraldatzen dena. Hiri-landa espazioek elkarri begira egon behar dute, eta ez elkarri bizkar emanda. Horrez gain, lurraldearen funtzionaltasunaren berreskurapena bilatu behar da, paisaia berriz edukiz bete. Funtsezkoa izango da lurraldea eta bertan bizi diren komunitateak elkarrekin lotzea, identitate-aztarnak berreskuratuz, tokikotasuna. Beharrezkoa izango da elikadura-sistema bere osotasunean kontuan hartzea: hazietatik hondakinetara. Eta azkenik, zera proposatzen da: «Utopia sortzailea eta kuriositatea: ametsa zein den argi izatea, helburua zehaztea eta bertara iristeko biderik onena bilatzea»[9].

3. Zer tresnarekin? Lurraren identifikazioa eta babesa; lehen sektorearen dinamizazioa

- Diagnostiko parte-hartzaileak eta teknikoak

Lurralde horren argazki erreala beharrezkoa da. Elikadura-sisteman eragiten duten aspektu guztien egungo egoera zein den jakin beharra dago, indargune eta ahuleziak identifikatzeko, eta oztopo eta aukerak. Lan tekniko eta teorikoa funtsezkoa den arren, tokiko eragile eta biztanleen ahotsak jasotzea nahitaezkoa da, bestela posible delako bulego-lan horretatik kanpo gelditzea lurraldean existitzen diren bestelako dinamika eta prozesuak, etorkizuneko planteamenduen arrakastarako kontuan hartzea ezinbestekoak direnak.

- Tokiko Elikadura Sistemen karakterizazioa

«Toki» bakoitzerako egokiena den elikadura-sistema diseinatu beharra dago, lurralde horren berariazko ezaugarriak kontuan hartuz. Beste nonbaiten funtzionatu duen arrakasta-eredu orok tokian bere egokitzapena izan beharko du.

- Lurzoruen identifikazioa

Zein da egun lurraldean artifizializatu gabe dauden lurzoruen egokitasuna elikagaien sorrerarako[10]? Zein egoeratan daude: erabili gabe, beren bokazioarekin bat ez datorren erabilera batekin…? Noren eskuetan daude? Zergatik daude dauden moduan? Nortzuk dira lurra behar dutenak? Datu horiek guztiak beharko dira lurren eta erabileren berrantolaketa egokia planteatzeko.

- Prozesuen dinamizazioa

Elikadura-sistemen birtokiratze bat bilatzen baldin bada, eta egungo egoerak ez baldin badu hura faboratzen, beharrezkoa izango da inertzia berriak sortzeko dinamikak elikatzea. Optimoena litzateke modu auto-antolatuan behar ezberdinei erantzutea, baina batzuetan kanpo-bultzada bat behar izaten da orain arte era batean egindakoak modu ezberdinean egiteko. Herriko lur azpierabiliak dinamizatzeko prozesua abia daiteke, eraldaketa-azpiegitura berri baterako beharrak ekoizleen artean erabakitzeko prozesua, hondakin organikoen kudeaketa lokala antolatzeko prozesua…

- Politika publikoak

Erakunde publikoak dira *a priori* apustuak egiteko ahalmen handiena dutenak: baliabide ekonomikoak, langileak, eskumenak… Haiei eska diezaiekegu gure zergen dirua beste era batean kudeatzea eta erabiltzea, eta, noski, eredua ematea.

Lurraldearen egoeraren zergatia aztertu ondoren, politika publikoen[11] bitartez tresna desberdinak erabili ahal dira lurraren elikagaiak ekoizteko ahalmena aprobetxatzeko. Lurren blokeo-egoerari aurre egiteko lanabes desberdinak erabil daitezke, eta toki bakoitzean egokiena dena bilatu beharko litzateke. Zergen egokitzapena, bitartekaritza-zerbitzuak, lurraldearen zaintza-proiektuak, zirkuito laburreko elikagaien kontsumorako ekintzak… adibideetako batzuk lirateke.

9 Josep Montasell i Dordáren aipua.

10 Egun, gai honen inguruko kontzientziazioa ugaritzen ari da. Nekazaritza-ingeniaritzetako curriculumaren barruan sartzen ari da GIS tresnen bitartez aspektu horiek aztertzeko metodoa. Gainera, hainbat eskualdek ere gauzatu dituzte beren lurren egokitasunen inguruko azterketak: Busturialdea, Urola Garaia, Nerbioigoiena... Hala nola badira zenbait udalerri beren HAPOn lurren ezaugarri horiek kontuan hartu dituztenak: Amurrio, Ea, Izurtza, Zaldibar, Zeberio... Urola Garaiko lurren azterketaren ingurukoa jaso zen *Aldiri*ren 33. zenbakian.

11 Ikusi *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten. Elikadura burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitzeko zenbait proposamen*. 2015ean Bizilur, EHNE-Bizkaia eta Etxalde Nekazaritza Iraunkorrak argitaratutako dokumentuko 32-55 orrialdeak.

Ondorioak

Elikadura-sistemak barne hartzen ditu elikagaien ekoizpena, eraldaketa, banaketa, merkaturatzea, kontsumoa eta hondakinen kudeaketa zein balorizazioa. Lurraldeak elikagaiak ekoizteko duen borondatea berreskuratu nahi izanez gero, osotasunean aztertu behar da egungo elikadura-sistema, ekoizpen hori tokiko kontsumitzaileengana heltzea ahalbidetzeko. Horretarako, hainbat dira elikadura-sistemen definizioan eragiten duten eremuak: plangintza ezberdinak, legediak, araudiak, ekimenak, ohiturak eta azturak kasu. Gainera, argi izan behar da zein printzipioren gainean eraikiko den, horren araberakoa izango baita emaitza ere. Eta azkenik, beharrezkoa izango da hainbat tresnaren inplementazioa: diagnostiko teknikoak eta parte-hartzaileak, tokiko elikadura-sistemen karakterizazioa, lurzoruen identifikazioa, prozesuen dinamizazioa eta politika publiko berrien diseinu eta garapena.

///

Bibliografia

Arto, I. (2009): «El metabolismo social del País Vasco desde el análisis de flujos de materiales», *Revista de Economía Crítica*, **8**, 43-80.

Brent, Z. eta Urretabizkaia, L. (2018): «Agenda emancipadora de la Soberanía Alimentaria», *Baserritik Mundura unibertsitate-ikastaroaren barneko 6. Gida Didaktikoa*, EHNE-Bizkaia eta HEGOA Institutua.

Di Masso (2012): *Redes alimentarias alternativas y soberanía alimentaria. Posibilidades para la transformación del sistema agroalimentario dominante.*

Duro, I. eta García, F. (2017): *Eskola jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura.* VSF Herrien bidezko elikadura-EHIGE.

Feenstra, G. (1997): «Local food systems and sustainable communities», *American Journal of Alternative Agriculture*, *12* (1), 28-36.

Gallego, S. eta Milikua, L. (2018): «Lurraldearen, elikaduraren eta lanpostuen arteko harremana. Azterketa-kasua Goierriko 6 udalerritan», *Aldiri. Arkitektura eta abar*, **33** [ISSN 1889-7185], 31-36.

Hospes, O. eta Brons, A. (2016): «Food system governance: A systematic literature review», in Amanda Kennedy eta Jonathan Liljeblad (edit.), *Food systems governance*, 1. edizioa, 2. kapitulua, Routledge, 13-42.

Morán Alonso, N. (2015): *Dimensión Territorial de los Sistemas Alimentarios Locales. El caso de Madrid*, doktore-tesia, Departamento de Urbanística y Ordenación del Territorio, Escuela Técnica Superior de Arquitectura, Universidad Politécnica de Madrid.